

Argitalpenak

Diskoteka

IKER BARANDIARAN

Grindcorea egitea ere terapia da

Atzeko (euska) kaleko mutilak ez dira beste Back Street Boys haiek bezalakoak. Hori oso argi utzi dute diskoko azalean. Ez hori bakarrik: diskoa entzuten hasi bezain laster konturatu zara Zenarruzabeitiaren lagunek muturreko soinuak maite dituztela. Neubateko kideen



Basque Street Boys Vice Presidentes

MATASELLOS

Iraupena: 38'28"
9,76 euro

talde paraleloa Black Sabbathen eta talde stonerren riff-ak zeharo alboratu gabe grindcorean murgildu da urteotan. Ahots grabe eta amorratuak batuta, azeleragailuari beheraino zapaldu diote grindcorearen, deatharen eta tarteka metalaren korridore estuetatik barrena. Urteak daramatzate Mogamboko eskolatik harago kontzertuak egiten, eta orain beraiek autoekoiztutako diskoa dendetara eraman dute. Euskal Herriko aldizkari beteranoen, ARGIA ere beraien berri eman dute. Euskal gizartea doinu askotara zabalik dagoen seinale.

VICE PRESIDENTES

«Banpiroak, kanibalak... Horrelakoek isla dute gaur egungo gizartean eta politikan»

Zer da lehenengo oiloa, arrautza ala Black Sabbath? Azken hori beti dago presente zuen taldeetan...

Argi dago edozein rock talderentzat oso eragin garrantzitsua dela Black Sabbath. Gure kasuan hala izan da egin ditugun talde guztietan. Niretzat, Tommy Iommi riff-aren erregetako bat da. Kasu honetan Black Sabbath oiloa da.

Zer arrautza ematen ditu Vice Presidentesek, Neubatek ematen ez dituenak?

Estilo zeharo ezberdinak dira. Vice Presidentes indarrean eta amorrazioan oinarritzen da gehienbat; eta Neubaten melodiak garrantzia oso handia dauka. Abestiak

egiterakoan oso era ezberdinean bideratzen dugu talde bakoitzean prozesua. Vice Presidentesen ertzaren bila gabiltza uneoro, gure mugez, alegia.

Zer premia zeneukaten beste talde hau egiteko? Zer ematen dizue?

Hasieran gure asmoa estilo ezberdinekin probatzea zen... eta zarata asko egitea! Nolabaiteko terapia bezala jaino zen. Apurka-apurka urratsak ematen jarraitu dugu eta azkenean argitaratu dugun diskoan islatu da dena. Baina nik uste dut proiektu honek bere izaera esperimentala oraindik baduela, eta terapeutikoa izaten jarraitzen du guretzat!

Zeren gainekoak dira zuen hitzak, Gasteizen egindako droga atzemateei buruzkoak?

Denetarik aurki daiteke. Gehienak beldurrezko istorioak balira bezala idatzita daude, baina errealitatearekin lotuta daude. Banpiroak, kanibalak... horrelakoek badute isla gaur egungo gizartean eta politikan.

Lan hau Matasellos-ek kaleratzeaz gain, Labatelkuëyoren laguntza izan duzue...

Labatelkuëyori esker gure zigiluak, Matasellosek, behar duen azpiegitura legala lortu dugu. Azpiegitura horren bitartez diskoa leku anitzetan banatzea lortu dugu: denda handietan eta horrelakoetan. Eta Espainiako Estatuan ere banatuko dugu. Oso ondo portatu dira gurekin Labatelkuëyokoak, eskertu beharrean gaude.

